

Freud eta inkontzientearen ideia

Gaiak Argitaletxea

Egilea: Iñaki Gonzalez Garai

Arloa: Psikologia

Webgunea: <http://www.gaiak.net>

2012/07/22

Psikoanalisa jaio zen unetik bertatik, beti izan da eztabaida sutua Freuden teoriari buruz. Horren aurka, denetarik esan eta idatzi da: limurtzeko ahalmen handiko sasiteorien multzo bat dela, 'zentzu komunaren' psikologiaren garapen bat baino ez dela, kausak eta ondorioak nahasten dituela, norbanakoa elkarren arteko borrokan aritzen diren 'entitateetan' (nia, supernia...) banatzea onartezina dela, sendabidea (halakorik izatekotan) luzeegia eta garestiegia dela, eta abar.

Agian, akusazio larriena honako hau da: zientziarekin zerikusirik ez izatea. Izan ere, esan ohi da psikoanalisan ez dagoela benetako gogoetarik proposizio faltsuei eta egiazkoei buruz; hau da, ez dago ezer hipotesia psikoanalitiko baliogabetzen duenik. Edozein gertakarik teoria berresten du. Adibidez, terapia baten bilakabidean espero diren emaitzak lortzen ez badira, hori gaixoak jartzen duen erresistentziari leporatzen zaio, eta ez metodoaren porrotari.

Azken batean, batzuen iritziz, psikoanaliaren praktika eta teoria sineskeriaren parekoak izango lirateke, eta XX. mendean zehar piztu zuen zalaparta Freud idazle bikaina izateari zor zaio gehienbat.

Baina Freuden ideiek, Mendebaldean behintzat, sekulako zabalera izan dute, eta hark jendartearen zabalduetako hainbat kontzeptu oso herrikoi bihurtu dira, horietako asko Freud bera baino askoz zaharragoak izan arren. Psikologoaren artean ere, Freuden jarraitzaileak asko dira eta eraso berari eutsi diote, ikerketa berriak plazaratuz.

Esate baterako, azken bolada honetan, hainbat adituk inkontzientearen kontzeptuaren erabilera okerraz ohartarazi gaituzte.

Inkontzientea, gure barne-irriken gordailu?

Inkontzientearen ideia bera zaharra bezain zehaztugabea zen. Ezkutatuak guztiaren kabi? Ezin aitortuzko desiren gordailu? Mendean hartzen gaituzten indarren sorleku?

Hasiera batean, Freuden teorian, inkontzientea bulkaden edo pultsioen gunea zen. Eta pultsio garrantzitsuenak bi motakoak dira: sexu-pultsioa (libidoa) eta heriotza-pultsioa. Biek beren helburuak asetzea baino ez dute bilatzen. Indar horiek Greziako mitologia klasikoaren Eros eta Thanatos pertsonaien bidez irudikatzen dira.

Sexu-pultsioa edo libidoa haur-sexualitatearekin lotzen da, gurasoenganako edo horien ordezkenganako sexu-irrikarekin. Irrika libidinala deitzen zaio.

Heriotza-pultsioa, aldiz, Freuden kezka bihurtu zen Lehen Mundu Gerraren izugarrikeriak ezagutu ondoren. Teoriak testuinguru historiko jakinetan sortu eta garatu egiten direla kontuan hartu behar da, ezinbestean, haien kritika egin aurretik.

Alabaina, dirudienez, Freud bera ere ez zegoen batere eroso inkontzientearen kontzeptuarekin. Batez ere, haren bizitzaren azken urteetan. Gainera, ordurako, psikoanalisi hainbat adarretan zatitzen ari zen. Eta adar bakoitzak oinarrizko kontzeptuen berraztertzeari ekin zion. Adibidez, Jung psikiatra suitzarrak sexualitatearen mendean ez dagoen inkontziente kolektiboaren ideia zabaldu zuen.

Inkontzientearen eremua zabaldua

Arestian, oinarrizko pultsioei buruz hitz egin dugu. Baina, hasierako psikoanaliaren arabera, pultsio horien aurka hainbat barne-entitate aritzen dira norbanako bakoitzean. Honako hauek, hain zuzen: supernia eta nia.

Supernia irakatsi dizkiguten eta guk barneratu ditugun betebeharrak moralen, debekuen eta eginbeharren ordezkaria da. Polizia modukoa da. Irnatasun gutxi-asko handiz pultsioen helburuak eragozten saiatzen da.

Nia kontzientzia pentsalaria da, eta pultsioen, superniaren eta kanpoko munduaren eskakizunei aurre egin behar die. Freudek 'hiru despotak' adierazpena erabili zuen hiru indar horiek deskribatzeko. Kanpoko munduari, hau da, gizarteari, errealtate-printzipioa deitu zion.

Laburbilduz, gure barne-psikismoan honako hiru indar hauek aritzen dira: pultsioak, supernia eta nia.

Inkontzientearen esparruari dagokionez, Freudek, 1930eko hamarkadan, bere aurreko iritzia zuzendu eta superniak, erreprimutako gurasoenganako sexu-irrika ere hor sartu zuen.

Beraz, Freuden teorian, inkontzienteak, pultsioak ez ezik, superniaren eta niaren alderdi batzuk ere barnean hartu zituen. Eta Nietzsche filosofoak erabilitako 'zera' kontzeptuaz baliatu zen antzinako inkontzientea (pulsioak) izendatzeko. Geroztik, Freudek inkontziente hitza egoera bat deskribatzeko erabili zuen, eta ez pultsioen sinonimo gisa.

Hitz gutxitan esanda, gure desira batzuk inkontzienteak dira baina horien errepresioa ere inkontzientea da. Azken batean, psikoanaliaren helburu nagusia erreprimutako pultsioak kontziente bihurtzea da.

Zoom in

* Theodor Lipps filosofo alemaniarra izan zen inkontzientearen kontzeptuaren sortzailea: iraganaldiko jarduerak, guk jakin gabe gure barnean jarduten jarraitzen dutenak.

* Psikoanalisi klasikoaren arabera, neurosia sortzen da pultsioen eta horiek arbuizatzeko barne-indarren arteko gatazka larriegi bihurtzen denean.

* Jacques Lacan psikiatrak inkontzientea hizkuntza bat dela esan zuen.

* Psikologo kognitiboek inkontzientearen kontzeptua erabiltzen dute hautemateko, ikasteko eta jarduteko gaitasun edo automatismo ez-kontzienteen multzoa izendatzeko.